

Bilbotik, 1971.ko Martxoaren 10ean

F.Lafitte jaunari

Baionara

Kintane

A/22

Neure jaun maitea:

atzo jaso nuen zurea. Boz handia eman dautazu zeure eskutitzarekin; egia esan, ez nuen pentsatzen hain urrundik eta hain jende jakintsuaren aldetik irakurriak zirela ene lanak.

Zure galderari erantzunaz, esan behar dautzut ez dela inondik ere sorginen hizketa delako hori nik asmatua. Egia esateko, zurea irakurri ondoren neronek ere ba ditut neure dudak, eta orain zalantzan nago, ea sorginena gabe, hori haur joko bat besterik ez den. Dena dela, gerta daiteke lehen sorginena izatea eta oraingoan haurren artean jolasgarri bezala gelditzea.

Nik neuk liburu batean irakurri nuen aspaldian hori, hots, sorginena delako hori. Ez dut esku artean orain liburu hori, baina ongi gogoratzen naiz zein zen. Canto lo mío, Gabriel Celaya erdal poetaren liburua. Dena dela, xehekiago jakin dezazun, esan dezaket zertara zetorren abisu hori. Poeta horrek ~~www~~ Euskal Herriko gazetaz egiten zituen liburu horretan bere kantak, haietarako, gaitzat, Euskal kanta zahar edo esaera herrikoi bat hartuta. Batean, hasiera bezala, honela hasten da: baga, biga, higa, laga, boga, sega, zaga... eta irakurlearentzat ohar bat jartzen du orrialdearen beheko partean, kontatzeko modu hori Euskal Herriko sorginena zela aipatuaz. Neronek sinetsi egin nuen, eta duda gabe, ene gisa, bai eta Ez dok amairu taldekoek ere, antza denez. Dena dela Celaya jaunak ez dio nondik hartu du berak zenbaketa hori sorginena delako kontua eta, guztitara, problema honetan lehen bezala gelditzen garateke. Benetan sentitzen dut ezin gehiago esplika-tzea, ez baitakit.

Idazten dautzudanez gero, bide batez neronek ere zerbait galde-tu nahi neukezu. Bozkario handiarekin jakin dut Euskal gramatika estruktural bat egiten ari zarela. Adore eta eredu txalogarri bat erakusten daukuzu gazte askori, hala fede, urtez aitzineratua zaren arren, bihotza, lanerako bederen, ezin gazteagorik eta indartsuagorik gordetzen baituzu. Urdea, jakin nahi nuke ea euskeraz ala erderaz (frantsesez, noski) eginen duzun lan hori.

Gazteok euskeraz egin zenezan nahi genuke, hala fede, lotsagarri baiteritzo-
gu euskaldun jakintsuek kultur lanak erderaz egiteari. Euskera, norbaitek
esan zuen bezala, gure aurrekoen alferkeriagatik, edo aisetasun (edo -keria-
gatik) pobrea dugu. Jainkoarren! ez dezagun pobreago egin oraino!.

Fontes Linguae Vasconum-ean Jon Etxaidekoaren lanari (Etxahunen bertsoak
gipuzkeraz) zerorrek egin zenion kritika gustora irakurri nuen, eta oker ez
banago, hartan lan hura are txalotzenago zenuen euskeraz egina zegotelako. Bes-
te horrenbeste esanen neukezu neronek ere. Hain zuzen ere, azken F.L.V. ean
oso artikulua interesgarri bat dator, bretoi batek egina, baina bretaineratik
frantsesera itzulia! Katalanek eta bretoiek beren lanak beren hizkuntzaz egi-
ten dituzten artean, euskaldunok ez dukegu beste horrenbeste eginen?

Dirudienez, F.Mendizabal eta Txillardegiren lanen ondoren (Batasunaren Ku-
txa alde batera utzita) nerau izanen naiz hil nonetan linguistikari buruz
euskeraz idatziko dudan hurrengo, lur editorialak ~~ane~~ liburu bat publikatu-
ko baitu. Benetan nahi genuke zu ere bide beretik abiatzea; amai gabeko txa-
loak errezebituko zenituzke gazteon aldetik, bai eta Euskal Herri zintzo guz-
tiaren aldetik ere. Gaizkiago irtenen dela euskeraz frantsesez baino? Ez du
horrek bat ere ardura, zeren Atsularrek ongi dioten bezala, lehen enseiua,
lehenak direlako, barkakizunenak baitira.

Orain mintzo nahi beste gai batez. Aurtun betetzen dira Leizarragaren Tes-
tamentu Berriaren 400 urteak. Horretan pentsatuz, orain urte bat dela, maki-
naz pasatzen hasi nintzen haren lana (4 ebanjelioak bederen publikatzeko as-
moaz) oraingo ortografiara moldatuaz. Honez gero, anaitasunak esan zuen beza-
la, nahiko aitzineraturik dadukat lan hori eta laster bukatuko duket. Edizio
kritiko bat egiteko asmoz, Mitxelena jaunari hiztegiak eta Villasante jauna-
ri literaturaz, aitzin solas bana egin ziezadaten erregutu nien, biek baiezkoa
emanaz. Lafon jaunari ere aditzaren sistimaz beste horrenbeste eskatu nion
aspaldi dela, eta oraino ez dut haren ihardespenik hartu. Agian ez duke honez
gero gogorik edo indarrik aski horretarako. Hark hain lan ederra egin zuela-
rik, iruditu zitzaitan ez zegokeela ongi liburu hori ateratzea hari hitzau-
rre bat eskaini gabe, harentzat mezpreezio gisako bat gerta baitzitekeen. Agi-
an zuk harreman handiagoa dukezu harekin nik baino (pertsonek ez baitut eza
gutzen); erregutuko neukezu, mesedez, hari galdetzeko ea egiteko asmorik duen
ala ez. Dena dela, ongi gera bedi ez dudala nik xartzat hartuko haren ezetza.

Hark eginen ez balu eta zerorrek, laburki bederen, aditz gai horretaz ezer egiteko asmorik bazenu, jakizu oso pozik hartuko neukezula lan hori hitzaurre gisa. Edo ta, Lafonek egin arren, zeuk ere beste zer bait, beste gai batez, egin nahi bezenu ere, ongi errezibituko dautzut. Zure gramatika ongi ezagutzen dut (eta estimu handitan eduki ere!) eta ongiegi dakit oso gauza eder bat egin dezakezula. Egitekotan, noski, euskeraz nahiago nuke, lehen aipaturiko arrazoiengatik.

Eta besterik ez. Barka lezadazu hain denbora baliosa hitz hauekin kentzea, eta jakizu zure zerbitzari eta ikasle apal duzula

Daher Kintana